

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

2025 ekitaldirako aurrekontu orokorra eta langile lanpostuen plantilak. - Hasierako onarpena.
(Espedientea: 2024/3078)

Laudio Udalaren Udalbatzak, 2025eko apirilaren 15ean egindako osoko bilkuran, erabaki zuen onartzea hasiera batean 2025 ekitaldirako aurrekontu orokorra, bertan sartuta daudelarik batetik, udalaren aurrekontua eta udal euskaltegia erakunde autonomoarena eta, bestetik, aurrekontua betearazteko udal araua; udaletxeko eta udal euskaltegia erakunde autonomoko langile lanpostuen plantila.

Kontutan izanik Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauko 15 artikuluan erabakita datorren legez, honako iragarki hau argitaratu da hamabost (15) eguneko epean jendaurrean erakusteko. Epe horren barruan legitimitatez interesatuta daudenek aztertu ahal izango dute eta Udalbatzari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote. 2025 ekitaldirako aurrekontu orokorra eta langile lanpostuen plantilak, dagokion dokumentazioarekin batera, udaletxeko udal kudeaketa arloaren bulegoan, Herriko Plaza, bigarren solairuan, egongo da interesdunen eskura.

a) Erakusketa eta erreklamazioak aurkezteko epea: hamabost (15) lanegun iragarki hau ALHAOn argitaratzen den hurrengotik hasita.

b) Non aurkeztu: erregistro orokorra.

c) Zein organori erreklamatu: Udalbatzari.

Epe horretan zehar erreklamaziorik ez bada aurkezten, 2025 ekitaldirako aurrekontu orokorra eta langile lanpostuen plantilak, behin betiko onartutzat joko dira. Erreklamaziorik balego, Udalbatzak erabakiko ditu hilabeteko epean berariazko erabaki bitartez eta erabakia behin betiko onartuko da.

Laudio, 2025eko apirilaren 16a

Alkate-udalburua

AINIZE GASTAKA MARTÍNEZ